

ERABAKIA, 2025eko Irailaren 08(e)koa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Harreman Instituzionalerako eta Kulturako errektoreordearena, INPAKTIKER Programako bekak arautu eta deialdia egiteko, beken helburua izanik Gradu Amaierako Lana/Master Amaierako Lana EHUK sortutako inpaktu sozialaren azterketan oinarrituta

OINARRIAK

- I. Xedapen orokorrak
 - 1. Xedea
 - 2. Proposatutako bekak, edukia eta iraupena
- II. Bekaren onuradunak hautatzeko prozesua
 - 3. Hautagaien betebeharrak
 - 4. Eskaerak egiteko prozedura
 - 5. Bekak esleitzeko prozesua
 - 6. Hautaketa Batzordea
 - 7. Baloraziorako irizpideak
- 8. Erabakia
- III. Bekei buruzko beste gai batzuk
 - 9. Informazio osagarria ematea, berariazko informazio bilera, beka onartzeko agiria sinatzea eta beka hasteko beharrezko agiriak ematea.
 - 10. Laguntzak ordaintzea
 - 11. Bekaren onuradunaren betebeharrak
 - 12. Kontrola eta jarraipena
 - 13. Bekaren onuradun izateari uztea
- IV. Azken xedapenak
 - 14. Argitara ematea
 - 15. Araubide juridikoa
 - 16. Berariazko erabakirik eza
 - 17. Errekurtsoak

I. Xedapen orokorrak

1. Xedea

1.1. Erabaki honen xedea da INPAKTIKER Programaren (aurrerantzean, Programa) 2025eko oinarriak arautzea eta deialdia egitea, programaren helburua izanik EHUren inpaktu soziala ebaluatzea. Programa honek EHUKo Inpaktu Sozialaren Zuzendaritzatik martxan jarritako beste egitasmo batzuk osatzen ditu, EHUn berariaz sortutako jakintzatik abiatuta sortu den inpaktu soziala aztertuko duten Gradu Amaierako Lanak (GRALak) edota Master Amaierako Lanak (MALak) bultzatuz. Hori guztia, EHUKo ikasleen jarrera ikertzailea sustatuz, jakintza arlo ezberdinetako EHUKo irakasle-ikertzaileentzat topagune bat sortuz, eta zeharkako gaitasunak garatuz.

1.2. Programak 10 beka izango ditu, eta EHUKo 3 Campusetako ikasleen artean esleitu dira, 2025/26 ikasturtean defendatuko diren GRALak eta MALak prestatzeko eta garatzeko.

1.3. EHUKo ikerketa jardueretan sortutako ezagutzak gizartean duen eragina aztertzea izango dute helburu programa honetan parte hartuko duten GrAL edo MALek, edozein ezagutza arlotan sortutako ezagutzatik abiatuta. Lan hauek aztertu beharko dute ezagutza horiek zein ekarpen egin dioten gizartearen ongizateari: izan pertsonen, planetaren, oparotasunaren edo bakearen, justiziaren eta identitatearen eremuan. GRAL edo MAL horiek EHUn egindako ikerketa batek izan duen inpaktu sozial espezifikoaz aztertzea bideratuak egon daitezke, baita ikerketa horren inpaktu soziala aztertzeko tresnak diseinatzera/proposatzera ere, GRAL edo MAL horien testuinguruan tresnen aplikazioa ematen ez bada ere.

1.4. Programa honetako bekak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzat hartuko dira, publizitate, lehia eta objektibotasun printzipioen arabera emango dira, eta lehiaketa prozedura banaren bidez esleitu dira eskatzaileen artean; horrela, erabaki honetan jasotako balorazio irizpideak eta hautaketa prozesuak kontuan hartuta, puntuaziorik handiena lortzen duten hautagaiei soilik emango zaizkie, proposatutako beka kopurua bete arte.

1.5. Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako Errektoreordetzak finantzatzeko du deialdia, beti ere, kreditu nahikoa eta egokia badago.

2. Deitutako bekak, edukia eta iraupena

2.1. INPAKTIKER Programaren 2025eko deialdian, gehienez 10 beka eman ahal izango dira. Modu proportzionalean banatuta egongo dira hiru campusetan, campus bakoitzeko EHUKo ikasle kopuruaren arabera: Bizkaiko Campusean, 5 beka; Gipuzkoako Campusean, 3 beka; eta Arabakoan, 2 beka. Campus batean beka guztiak banatu ezean, beka horiek beste batera aldatu ahal izango dira, jasotako eskaeren eta deialdiaren balorazio irizpideen arabera.

2.2. Diru kopurua: 2.000 € ordainduko dira beka bakoitzeko programaren lehen bileran, konpromiso adierazpena sinatu eta entregatu ostean (III. eranskinean jasotako agiria).

2.3. EHUKo Inpaktu Sozialaren Zuzendaritzaren 2025eko aurrekontuak horretarako aukera ematen badu, Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako Errektoreordetzak laguntza gehiago eman ahal izango ditu.

2.4. Prestakuntza: hilerok, prestakuntza saioak egingo dira campus bakoitzean 2026ko martxoa eta ekaina bitartean, GRALa edo MALa ondo defendatzeko beharrezkoak diren zeharkako gaitasunak garatzeko, besteak beste.

2.5. Iraupena: beka hauek, GRALa edo MALa 2025/2026 ikasturtean garatu eta defendatzeko konpromisoarekin ematen dira, EHUKo egutegi akademiko ofizialaren arabera.

II. Bekaren onuradunak hautatzeko prozesua

3. Hautagaien betebeharrak

Hautagaiak honako baldintza guztiak bete beharko dituzte eskaera egiterakoan:

- 2025/26 ikasturtean, EHUKo Giza eta Gizarte Zientzietako edozein gradutako GRALa egiteko, edo arlo horretako master ofizialetako edo propio batean, matrikulatuta egotea. Beka eskatzeko unean GrAL/MALerako matrikulatuta ez egotekotan, matrikula hori beka jaso baino lehen formalizatu beharko du onuradunak.
- Salbuespen gisa, EHUKo beste jakintza arloetako graduetako ikasleek ere parte hartu ahal izango dute programa honetan, hurrengoko baldintzak betetzen baditu: Hautagaiak bere ezagutza, gaitasun edota esperientziagatik justifikatzen badu, baldin eta bere TFG/TFMaren helburu nagusia gizarte-inpaktua aztertzea bada Gizarte Zientzien eta Humanitateen ikuspegi propio batetik (dimentsio sozialak, kulturalak, etikoak, politikoak edo antzekoak), eta arlo horietako sail bateko irakasle edo ikertzaileen baterako zuzendaritza badu. Nolanahi ere, lehentasuna izango dute EHUKo Gizarte Zientzietako eta Humanitateetako edozein gradutan matrikulatutako pertsonak.
- Eskaria formalizatzen den unean, GRAL edo MAL bat garatzen aritzea edo hasteko oniritzia izatea eta lanaren zuzendaritza nagusiaz gain, beste sail bateko zuzendarikide bat izatea. Programa honetan parte hartu nahi duten EHUKo ikerketa taldeen zerrenda bat dago IV. eranskinean (ez da zehatza; lagungarria baino ez da). Bertan, haien ikerketa jardueraren inpaktu soziala aztertu nahi duten eta zuzendarikide izan nahi duten ikertzaileen zerrenda dago. Zuzendarikide horiek egindako ikerketaren gizarte-inpaktua aztertzerantz bideratu beharko da lana. Harreman hori I. eranskina betez egiaztatu beharko da.
- Denbora libre nahikoa izatea, alde batetik, bekako jardura formatiboetan parte hartu ahal izateko eta, bestetik, programara aurkeztutako GRALean edota MALean aktiboki lan egiteko.
- GRAL edo MAL proiektuaren ekarpenik garrantzitsuenak amaierako ekitaldi publiko batean azaltzeko konpromisoa betetzea.
- Oro har, Europar Batasuneko kide den estatu bateko herritarrak izan beharko dira bekaren eskatzaileek, edo atxikitako diren herrialdeetakoak, izangai diren herrialdeetakoak eta izangai potentzialetakoak (Ipar Mazedoniako Errepublika, Turkiako Errepublika eta Serbiako Errepublika) edo Europako Esparru Ekonomikoko (EEE) kide izanik Europako Merkataritza Libreko Elkarteko (EFTA) diren herrialdeetakoak, hau da: Liechtenstein, Islandia eta Norvegia. Espainiak ofizialki errefuxiatu, aberrigabe edo biztanle iraunkor aitortutako pertsonak ere parte hartu ahal izango dute deialdi honetan.
- Parte hartu ahal izango dute, halaber, programan parte hartzen duen herrialde bateko nazionalitatea izan gabe, beste herrialde bateko nazionalitatea duten pertsonak, baldin eta bekaren aprobetxamendu aldian Espainian bizitzeko egoitza baimen baliaduna badute.
- Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik ez izatea, ezta horretarako ezgaitzen duen legeko debekurik ere, sexu-bereizkeriagatik debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoarekin bat etorritik.

4. Eskaerak egiteko prozedura

4.1. Eskaerak aurkezteko epea: 2025eko uztailaren 21etik urriaren 20ra (biak barne) izango da.

4.2. Programan parte hartu nahi duten pertsonak, oinarri hauetako 3. puntuan adierazitako baldintzak betetzen badituzte, online egindako eskabidearen frogagiria ([Galdetegia](#)) eta sinatutako I. eranskina (GrAL edo MAL-a egiten aritzeagatiko ziurtagiria) aurkeztu beharko dute EHUko egoitza elektronikoan <https://egoitza.ehu.eus/> erregistro elektroniko orokorraren bitartez, “Eskatzen du” atealean ondorengo adierazita: “Deialdia: InpaktIker programa, Xedea: Inpaktu Sozialaren Zuzendaritza, Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako Errektoreordetza”.

Eskabidea egiteko behar diren eranskinak [InpaktIker programaren webgunean](#) daude eskuragarri, PDF formatuan deskargatzeko.

- I. eranskina: GRAL EDO MAL-A EGITEN ARITZEAGATIKO ZIURTAGIRIA
- II. eranskina: PROIEKTUAREN PROPOSAMENA.

4.3. Eskaera formularioan, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- NANaren, AIZaren edo pasaportearen fotokopia.
- Eskatzailearen Curriculum Vitae, gehienez 2 orrikoa, eskaera egiterakoan espediente akademikoari buruz eskura dagoen informazioa barne.
- INPAKTIKER beka eskatzeko proiektuaren proposamena, tutoreek eta ikasleak sinatua (orrialde 1, gehienez).

Erregistro elektroniko orokorrera sarbidea izateko, identifikazio elektronikoko sistema hauetakoren bat erabili beharko da:

- a) Izenperen Erabiltzailearen Ziurtagiri Digitala
- b) EHUko txartela (Izenpe)
- c) NAN elektronikoa
- d) Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalak emandako ziurtagiriak (FNMT-CERES).

Beste era hauetako batean ere aurkeztu ahal izango da:

- a) sektore publikoko edozein erakunderen erregistro elektronikoan.
- b) EHUko edo sektore publikoko beste edozein erakundetako erregistro gaietan laguntzeko bulegoetan bertaratuta, funtzionario publiko gaitu baten bitartez.
- c) posta bulegoetan.
- d) Espainiak atzerrian dituen diplomaziako ordezkartzetan edo kontsuletxeetako bulegoetan.

4.4. Bide telematikoz bidalitako eskabideak, aurreko paragrafoan adierazitako prozeduraren bidez erregistratu ez badira, aurkeztu gabekotzat joko dira, eta programatik kanpo geratuko dira.

4.5. Eskabidea egiteko formularioa eskuragarri dago honako web orrialdean: <https://www.ehu.eus/es/web/inpaktu-soziala/convocatoria-inpaktiker>

Erregistro gaitan laguntzeko EHUren bulegoetan aurrez aurre aurkezten diren agiriak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoan sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrita EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin. Erabaki horrek onartu egiten ditu gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaitan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea EHU; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

5. Bekak esleitzeko prozesua

5.1. Eskabideak aurkezteko epea amaituta, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da EHUko Inpaktu Sozialaren atarian, EHUko Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako errektoreordearen erabaki baten bidez. Halaber, hala badagokio, zerrendan adieraziko da nori falta zaizkion derrigorrez aurkeztu beharreko agiriak eta zer agiri falta zaizkion. Horrelakoetan, izangaiak 10 egun balioduneko epea izango du agiriok aurkezteko, eta horrela egin ezean, eskabidea bertan behera utzi duela ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

5.2. Baztertzeko arrazoiak honakoak izango dira: a) eskabideak deialdi honetan ezarritako epetik kanpo aurkeztea; eta b) erabaki honetan adierazitako baldintzak ez betetzea.

5.3. Behin-behineko zerrendari erreklamazioak egiteko epea amaituta, aurreko atalean adierazitako tokian, Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako errektoreordearen erabakiaren bidez, hautaketa prozesuan parte hartuko duten hautagaien behin betiko zerrenda argitaratuko da.

5.4. Erabaki horren kontra aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu daiteke, Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako errektoreordeari zuzendua, hilabeteko epean, edo zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua, dagokion jurisdikzioko epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean.

6. Hautaketa Batzordea

6.1. Hautaketa Batzordeak osakide hauek izango ditu:

- Batzordeburua: EHUko Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako errektoreordea edo hark izendatutako pertsona bat.
- Idazkaria: EHUko Inpaktu Sozialaren zuzendaria edo hark izendatutako pertsona bat.
- Batzordekidea: i³ GAZtE Programako orientazio teknikaria edo hark izendatutako pertsona bat.

6.2. Hautaketa Batzordeak bozketa bidez hartuko ditu erabakiak. Oinarri hauetan zehaztu gabe dagoen guztirako, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, zehaztutakoari jarraituko zaio.

6.3 Hautaketa Batzordeak iritzia eskatu ahal izango die batzordekoak ez diren kanpoko profesional, ikertzaile edo espezialistei.

7. Baloraziorako irizpideak

Hautaketa Batzordeak balorazio irizpide hauek hartuko ditu kontuan:

- Lanaren kalitatea eta horren barruan: helburuak behar bezala definituta izatea, datuak zorrotasunez erabiltzea, lana zehaztasunez proposatzea eta azalpena argia izatea: %30.
- Lanaren garrantzia eta metodologia, eta honen barruan: gaiaren garrantzia; helburuei egokitutako proposamen metodologikoa; interesa eta ikerketaren etikari dagokion praktika onak erabiltzea: %30.
- Lanak gizartearengan daukan inpaktu soziala eta irismena, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin eta EHUagenda 2030ean berariaz ezarritakoekin bat: %30.
- Espediente akademikoko batez besteko nota: (Master Ofizialen kasuan, horietara sartzeko ikasi izandako graduaren nota hartuko da kontuan): %10.

8. Erabakia

8.1. Beka eman edo ukatzeko Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako errektoreordeak emango duen Erabakia jarraian adierazitako helbidean argitaratzen den egunean bertan sartuko da indarrean, eta egun horretatik aurrera izango da betearazlea: <https://www.ehu.eus/es/web/inpaktu-soziala/convocatoria-inpaktiker>.

Errekurtsoak jartzeko epea kontatze aldera, argitalpen elektronikoaren data hartuko da kontuan.

8.2. Bekak emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, bekak emateko erabakia aldatu ahal izango da, betiere erabaki honetan onuradun izateko ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen badira.

III. Bekei buruzko beste gai batzuk

9. Informazio osagarria ematea, berariazko informazio bilera, beka onartzeko agiria sinatzea eta beka hasteko beharrezko agiriak ematea.

9.1. Esleipendunen behin betiko zerrenda argitaratuta, onuradunei banku kontuaren informazioa eskatuko zaie haien beka hitzarmena prestatzeko.

9.2. Halaber, informazio hori ematean, beka onartzeko agiri bat sinatzea eskatuko zaie. Beka onartzea (ikus III. eranskineko ereduak) ezinbesteko baldintza da beka gauzatzeko. Erabaki honetan adierazitako moduan onartzen ez bada, erreserbista zerrendan lehenengo agertzen den pertsonari esleituko zaio beka.

9.3. EHUko campus bakoitzean hasierako bilera bat egingo da (data oraindik zehaztu gabe) esleipendunekin programari buruzko informazio zehatza emateko.

10. Laguntzak ordaintzea

10.1. Oro har, laguntzak banku transferentzia bidez ordainduko dira onuradunek emandako kontu korrontean, eta laguntzen onuraduna izan behar da nahitaez kontu horren titularra edo titularkidea. Kontu zenbakia onuradunak berak eman beharko du, eta erabilgarri egon beharko da bekak irauten duen aldi osoan.

11. Bekaren onuradunaren betebeharrak

Bekaren onuradunaren betebeharrak dira:

- Bekaren aldian eskatzen zaizkion agiri guztiak (laburpenak, lan gidatuak eta abar) aurkezteko epeak zorrotz beteta. Epe hauek programaren lehen bileran finkatuko dira.
- Beka onartzea erabaki honen III. eranskinean (Konpromiso adierazpena) jasotako ereduaren arabera, erakundeak horretarako adierazitako epean.
- Ezarritako epean eta bekaren izaeraren arabera, arduraz aritzea eman zaizkion prestakuntza jardueretan.
- GRALa edo MALa 2025/2026 ikasturtean jartzea gordailuan eta ikasturte horretan defentsa egitea.
- Programaren barruan egiten diren ekintza formatibo guztietan parte hartzea (aurkezpen bilera, ebaluazio bilera formal eta informalak, coaching-saioak, etab.).
- Programaren antolatzaileekin kolaboratzea, programaren ebaluazioa gauzatu aldera.
- Beka emateko kontuan hartu den edo bekaren garapenari eragiten dion edozein gorabehera objektibo zein subjektibo aldatuz gero, horren berri ematea programaren antolatzaileei.
- Beste edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik helburu bererako jasotako dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideen berri ematea programaren antolatzaileei.
- Programako lankideekiko eta gainerako partaideekiko errespetuzko jarrera arduratsua izatea.

12. Kontrola eta jarraipena

Programaren antolatzaileek egingo dute beken onuradunek garatu beharreko jardueren kontrola eta jarraipena. Erakundeak egokitzen jotzen dituen egiaztapenak egin ahal izango ditu beken garapenari dagokionez.

13. Bekaren onuradun izateari uztea

13.1. Bekaren onuradun izateari utziko zaio bekaren indarraldia bukatzen denean, bai eta beste arrazoi hauengatik ere:

- Berariaz edo isilbidez uko egitea. Aurreikusita dago ikaslea zigortzea, baldin eta beka lortu ondoren behar bezala justifikatutako arrazoirik gabe bekari uko egiten badio, beste hautagairen bat bekaren onuradun izatea eragozten duen data baten ondoren.
- Betebeharrak justifikaziorik gabe ez betetzeagatik edo horiek emateko kontuan hartu ziren baldintzak aldatzeagatik beka bertan behera uztea.
- Bat-bateko bateraezintasun edo ezinbesteko arrazoiengatik.

13.2. Bekadun izateari utziz gero beka aldia amaitu aurretik, bekadunak kobratutako eskubide ekonomiko guztiak itzuli beharko ditu. Itzuli beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, betetzeaz geratzen den beka-aldia hartuko da kontuan.

13.3. Beka emateko oinarri izandako baldintzak betetzen ez direla egiaztatzen bada, jasotako zenbatekoak eta dagozkion legezko interesak itzuli beharko zaizkio EHUri, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera; izan ere, dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kargura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeri buruzko araubide orokorra arautzen da.

13.4. Bekadun izaera bertan behera uzteko Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako errektoreordeak emandako erabakian jasota agertuko da egokia den edo ez ordezkia izendatzea bekaren aldia bukatzeko geratzen diren hilabeteetan bekaren oinarrietan zehaztutako jarduerak betetzeko. Horretarako, kontuan izango dira bekaren aldia bukatzeko geratzen den denbora eta beste gorabehera batzuk.

Ordezkoa izendatu behar baldin bada, Hautaketa Batzordeari dagokio ordezkia proposatzea, deialdi honen 7. puntuan aipatutako irizpideei jarraituz.

IV. Azken xedapenak

14. Argitara ematea

14.1. Erabaki hau 4. oinarrian zehaztutakoa kontuan hartuta argitaratuko da.

14.2. Deialdi honetako gainontzeko erabaki eta egintzak helbide honetan argitaratuko dira <https://www.ehu.eus/es/web/inpaktu-soziala/convocatoria-inpaktiker>

Gune horretan bertan egongo da eskuragarri programari buruzko informazio zabalagoa.

14.3. Erabaki honetan adierazitako epeak, eskabideak aurkezteko azken eguna salbu, gutxi gorabeherakoak dira, eta programaren antolatzaileek hurrengo helbide honetan zehaztuko dituzte eta argitara eman: <https://www.ehu.eus/es/web/inpaktu-soziala/convocatoria-inpaktiker>

14.4. Programari buruzko informazio gehiago eskuratzeko; telefonoa, 943 01 84 22; web orrialdea: <https://www.ehu.eus/es/web/inpaktu-soziala/convocatoria-inpaktiker>

15. Araubide juridikoa

Programa honek arau hauek izango ditu oinarri: (1) erabaki honen oinarriak; (2) azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena; bereziki, VI. titulua, "Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Laguntzen eta Dirulaguntzen Araubidea" izenekoa; (3) Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra, indarrean dagoena; eta (4) aplikatzekoa den gainerako araudia.

16. Berariazko erabakirik eza

Baldin eta erabaki hau argitaratzen denetik sei hilabetera ez bada beken esleipenari buruzko inolako erabakirik argitaratu iragarki oholetan, interesdunek ezetsizat jo dezakete beren eskaera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24. artikuluan zehaztutakoarekin bat etorrira.

17. Errekurtsoak

17.1. Erabaki honen kontra eta bekak esleitzeko behin betiko erabakiaren kontra, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkez dakioke Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako errektoreordeari.

Horretarako epea hilabetekoa izango da, erabakia argitaratzen denetik kontatzen hasita.

Hori guztia urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, zehaztutakoarekin bat etorrira. Berariazko erabakirik eman ezean, errekurtsua ezetsi egin dela ulertu beharko da.

17.2. Hala ere, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke administrazio auzietarako Bilboko epaitegietan bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratzen denetik kontatzen hasita.

Berraztertze errekurtsua jarritz gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri berraztertze errekurtsuaren erabaki espresua eman edo presuntziozko ezespena gertatu arte.